

JAI BATZORDEA

Eguna: 2022/06/29

Bilera zenbakia: 2. bilera

Ordua: 17:30

Partaideak: Rosario Arza eta Mari Garro (jubilatuen elkarte); Emma Arrondo; Haizea Iturrioz, Garazi Telleria, Nahia Martinez (gaztetxoak); Iñigo Adurriaga (Arbel- Aitz elkarte); Ekain Sodupe (guraso elkarte); Iker Mendizabal eta Nagore Etxeberria.

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Egitaraua.
2. Hurrengo bilerarako etxekolanak.

1. Egitaraua

Irailak 22, osteguna

- Hurrengo tailerra (lotzeko nork prestatuko dituen jolasak. Ea hezitzaileak kontratatutako egongo diren ordurako).
- Mahai jokoak + merendola, jubilatuen elkartearen. Merendola jubilatuen kontura (txokolatea egongo dute + gozoren bat, jateko).

Irailak 23, ostirala

- Zinta karrera.
- Jolasak (guraso elkarte + hezitzaileak (kontratatuak badaude).
- Pregoia, 18:30ean.

Jubilatuek botako dute. Laguntza eskatu dute testua prestatzeko.

- Batukada (jakinaren gainean daude).
- Herri afaria (Erramunek, ohi bezala).
- Kontzertua: Trikidantz (lotuta). Kostua: 2.500 euro (dena barne).

5 lagun izango dira afaltzeko.

Herriko taldeei (sanjuanetan dantzak irteten direnak, herriko trikitilariak edo musikariak) **aukera ematen diete, abestiren bat eurekin batera jotzeko.**

Sanjuanetako taldean komentatuko da. Garazi Telleriari ere esan zaio.

Pare bat dantza egin daitezke, kontzertu hasieran. Tartean, beste abestiren bat.

Taldekoiei esan behar zaie.

Komentatzekotan geratu dira, parte hartuko duten edo ez erabakitzeko.

- Ostirala kuadrillen eguna egitea proposatu zuten gaztetxoek.

Arratsaldetik, kuadrillak blusa edo kamiseta berdinak jantzita irtetea proposatzen da.

Nola zabaldu kuadrilla eguna izango dela? **Uztailean zabaltzea komeni, jendea blusa edo kamiseta prestatzen joan dadin.**

Kuadrilla eguna iragartzeaz batera, aurtengo mozorro eguna aipa daiteke.

- Kuadrilla eguna izanik, haur jolasak beharrean, adin guztietarako jolasak egitea proposatzen da.
- **Jolasen prestaketa: Emmak baditu jolas batzuk buruan. Aiorarekin batera osatuko ditu.**
- Goizaldera, baratxuri zopa + txokolate jana.

Irailak 24, larunbata

- Goiz eresia (Joxe Marirekin jarriko da harremanetan Iker).
- 12:00etan, Beitiko igoera (LOTUTA. Ijito Kirol Elkartearen arduratuko da).

Lasterketaren aurretik, komeni da parte hartzaileen zerrenda izatea, opariak erosteko. Iaz opari asko soberan geratu ziren.

Izen emate moduko bat egin guraso elkartearen edo ikastolaren bidez.

- 14:30ean, paella jana.

Iker egiteko prest, baina laguntzaileak baditu.

Lan guztien zerrenda prestatu behar da, zenbat lagun behar diren jakiteko.

- Play back edo talent show zer egin aipatu da. Gazteek nahiago dute play back-a.

Azkenean, irekiagoa izatea hobe dela erabaki da; beraz, talen show. Izena ere aipatu da: Ijito show.

- Nola bete bazkaritik Ijito show arteko tartea?

Agian, ekar daiteke norbait.

Begiratu zenbat aurrekontu dagoen, eta horren arabera.

- 20:30ean, hanburgesa jana.

Azkenaldikoek ez dute nahi, beraz, **guraso elkartearen arduratuko da antolaketaz.**

200 bat hanburgesa erosi beharko dira + ogia.

Boluntarioak eskatu dituzte.

- Gero, **elektrotxarangaren bat. LOTZEKO.**

Proposamenak: Elektrotxufla, Rockalean...

- Gero, DJa.
- DJ Jotatxok ezin du.

Beraz, besteren bat topatu beharko da.

DJ Bull aipatu da, baina Irurako jaiak izanik, ezingo duela dio Ikerrek.

Hala ere, hari **kometatzekotan geratu da Iker**. Bestela, ea besteren bat ezagutzen duen galdetuko dio (Jotatxo ere bere bidez lotu zen, bere garaian).

Gaztetxoek Oihan Vega aipatzen dute. Galdetu aurrekontua.

Irailak 25, igandea

- Goiz eresia.
- **Puzgarriak. LOTZEKO.**

Eskatu zein eskaintza dituzten.

- 12:00etan, hamaiketakoa.

Betiko taldea prestatzeko prest dago (Amaia Salegi, Tere Etxeberria...).

Garbitzeko, jendea behar da.

Hemen ere, boluntarioak eskatu.

- 18:30ean, pilota partida.

Ordiziakoekin lotu pilotariak.

- Pregoia + ijitoaren igoera.

Agurra emango dute jubilatuek.

- 20:00etan, sagardo dastaketa (Arbel-Aitz elkarteak).

5 euro kobratu edalontzia + 4 pintxo. Pintxo aparte, euro 1 (kobratzen hasi zen, bestela, sagardoa dastatzera etortzen zenentzako ez zen gaztarik izaten askotan).

- **Senegaldarrek jatorri ezberdinetako janari dastaketa bat egitea proposatu dute festetan.**

Ez da lekurik ikusten festetan.

Hamaiketakoa oso klasikoa da, eta ez da ikusten.

Izan daiteke sagardo dastaketaren bueltan, baina ezetz dio jendeak.

Proposamena: pintxo potea aukera eskaintzea.

- **Mozorroa gaiarekin** egitea proposatzen da.

Hainbat gairekin bueltaka ibili ostean, **western-a** erabaki da.

- Afarirako eta paella janerako ea nahikoa sardexka, labana eta beste dauden begiratu behar da.

Egun, ez dago aukerarik janerako tresnak eskatzeko (lehen, bai). Beraz, nahikoa ez badago, zer egin:

- 1.- Norberak etxetik ekarri bereak.
- 2.- Beste elkarteetan eskatu (Arbel-Aitz, jubilatuek).
- 3.- Erosi. Kalkulatu zenbat behar diren, eta zenbat izan daitekeen.

2. **Hurrengo bilerarako etxekolanak:**

- Oihan Vegari aurrekontua eskatu.
- Vega ez bada, eskatu beste DJ-en bati aurrekontua.
- Elektrotzaranga lotu (proposamenak: Elektrotxufla, Rockalean (662218983)).
- Paella eta Ijito showaren artean tarteko musika edo zerbait pentsatu.
- Puzgarriak.
- Erabaki herritar musikariek eta dantzariak parte hartuko duten Trikidantz taldearekin batera.
- Zereginen zerrenda prestatu, boluntarioak eskatzeko (herri afaria, paella jana, hanburgesa jana, hamaiketakoa ontziak garbitzeko...).
- Jateko tresnen inbentarioa begiratu (zenbat koilara, sardexka eta beste dauden).

Hurrengo bilera: uztailak 13, 17:30ean.